

Euskararen Kontseiluak oniritzia eman die Institutuaren estatutuei

Egungo legedian aldaketarik ez dutela egingo berretsi du Perez-Nievas kontseilariak

ALBERTO BARANDIARAN
Iruñea

Nafarroako Euskararen Institutuak Euskararen Kontseiluaren onspena jaso zuen atzo, eta datorren astelehenean Gobernuak estatutuak onartu eta zuzendariaren izena jakinaraziko du. Euskararen Kontseiluko hainbat kidek, hala ere, ezadostauna agertu zuten estatutuak aztertu eta proposamenak egiteko aukerarik ez zutelako izan, eta hainbat aldaketa proposatu zituzten. Horiek denak datorren astean erantzungo ditu Gobernuak.

Oinarriak taldeko ordezkari David Anautek, nolahi ere, ez zuen erakunde berriaren estatutuen gainean iritzirik eman nahi izan, hain zuzen ere aztertzeko aukerarik ez zutela izan argudiatuta. Hezkuntza Departamentuak bilera egin bezperan igorri zituen estatutuak. Anautek «seriotasunik eza» leporatu zion departamentuari.

Ikastolen Elkarteko ordezkariak oniritzia eman zion testuari, baina haien botoaren azalpena idatziz igorriko dutela adierazi zuten. Halaber, *vascuence* hitza ahaldu eta *euskara* erabiltzearen aldeko deia egin zuen Pello Mariñelarena elkarteko zuzendariak. Euskaltzaindiko ordezkariak, berriaz, institutuaren izena aldaketa proposatu zuten: Euskararen Nafar Institutua.

ASMO BERRIAK. Bilera protokolozkoa zen, Gobernuak ez baitu, derrigor, erakunde berriaren osaketaz kontseiluari informazioa eman behar, baina hezkuntzaren arduradun berriaren asmoak gizarteratzeko balio izan zuen. Perez-Nievasen azalpen handirik ez zuela emango azaldu zuen, nolahi ere, bilera-aren hasieran. «Irakokizunak» espero zituela. Kontseilua osatzen duten erakundeko kide gehienek ez zuten iritzirik eman nahi izan, hala ere. Oinarriak-eko kideak, orduan, hizkuntza politikan aldaketak izango ote diren galdetu zion kontseilariari. «Iraultzarik ez da izango, baina ez dugu aurpegi garbiketa soilia egin nahi», esan zuen Perez-Nievasen, kazetariei une batzuk lehenago esandakoa errepikatuz.

Kontseilariak garbi utzi nahi izan zuen, nolahi ere, Euskararen Legean ez dutela aldaketarik egingo, eta ez dituztela egungo hizkuntza eremuak berraztertuko.

«Ez dugu dagoen legedia bortxaz aldatu nahi», esan zuen. «Azken urteotan egon den giroa aldatu nahi dugu, ez delako izan, arrazoiak arrazoi, normaltasuneko giroa». Zehaztu zuen giroaren arabera ondoren aldaketa sakonagoak ere egin ahal izango direla.

Kontseilariak Pedro Pegenaute-aren kudeaketa ez zuela kritikatu nahi esan zuen kazetarien aurrean. «Ez dut aurreko zuzendariaren begian hatza sartu nahi», izan zen hitzez hitz erabili zuen esamoldea, baina normaltasuna falta izan zela azpimarratu zuen behin eta berriro. Eta horren errudun «hainbat ikastetxetako gurasoen elkarte» ere egin zituen, gehiago zehaztu gabe.

Azalpenok Euskararen Kontseiluaren bilera baino lehenago egin zituen. Erakunde aholku emaila hori, azken bost urteotan, behin bakarrik bildu dela gogorarazi zioten kontseilariari, eta horri buelta emateko asmoa zuela esan zuen berak. «Kontseilu batek aholkuak eman behar ditu, eta bilerak egin behar ditu». Horretarako, moldaketa onartuko du Gobernuak, datorren asteleheneko bileran. He-

«Ez dut aurreko zuzendariaren begian hatza sartu nahi, baina normaltasuna falta izan da»

CARLOS PEREZ-NIEVAS
HEZKUNTZA KONTSEILARIA

mendik aurrera, hezkuntza arduradunek aulki bana izango dute kontseiluan, orain arte bezala, eta Nafarroako bi unibertsitateek, Euskaltzaindiak, Eusko Ikaskuntzak, Nafarroako Udal eta kontzejuen Federazioak, Ikastolen Elkar-teak eta Nafarroako Prentsa Elkar-teak kide bana izendatuko dute. Beste zazpi kide Nafarroako Gobernuak berak izendatuko ditu, «euskararen alorrean ospea duten

«Estatutuei buruz iritzia eskatu digute, baina testua bezperan emanda; seriotasun falta da»

DAVID ANAUT
OINARRIAK

kideen artean». Berrikuntza bakarra, beraz, euskararen sustapena helburutzat duten elkarte edo kultur taldeen ordezkaritza da. Gobernuak zerrenda bat ireki nahi du, eta izena emango dutenen artean txandaka gauzatuko dute ordezkaritza.

ZUZENDARIAREN SOSLAIA. Zuzendariaren izena izango da datozen eguntan kontseilariak argitu beharko duen galdera. Soslaiaz galdetu zioten, eta «konplikatu» zela onartu zuen. «Euskaraz jakin behar du, noski, hori garbi dago. Euskal kulturaren inguruko izango da, baina gai izan behar du ulertzeko UPN-CDN gobernu batean lan egingo duela», gaineratu zuen Perez-Nievasen. «Ez du zertan helburu politikoekin %100ean bat egin, baina ados egon behar du normalizazioan laguntzeko».

Ido horretan, NaBairen konplizitatea eskatu zuen. «Normalizazioaren alde baldin badaude, gurekin lan egin behar dute».



Euskararen Kontseiluko kideak atzo eginiko bileran. INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Pegenaute ahaztu



analisis
ALBERTO BARANDIARAN

Aldaketa dagoen ala ez dagoen erabakitzeak denbora beharko da, baina garbi dago Carlos Perez-Nievas Hezkuntza kontseilariak Pedro Pegenaute-aren garaia atzean utzi nahi di-

tuela. Itxurari dagokionez behintzat, bai. Hizkuntza Politikako Zuzendaritza desagerrarazi eta Euskararen Institutua sortzea, berez, ez da albiste txarra, erakunde berria soilik euskararen gaiak hartuko dituelako bere gain. Eta euskararen gaiak soilik erakunde batek kudeatuko dituelako. Pegenautek tema berezia erakutsi zuen, beti, hizkuntza politikaren alorrean ingelesaren, frantsesaren eta alemanen irakaskuntza ere sartzeko. Asmoak ez ezik, diruak ere bideratu zituen horretarako.

Asmoetan ere urruntzeko nahia nabaria da. Aurreko zuzendariak ia gurutzatatzat erabili zituen ar-

gudioak desmuntatuta geratu dira institutuaren estatutuetan. Euskal Herriko beste erakundeekin kolaborazioa, euskara sustatzen duten taldeekin elkarlana, elkarte eta kultur taldeen sustapena, atzerrian ere euskararen prestigioa begiratzea... Hori guztia ezta aditu ere aurreko urteetan, ez asmoetan, ez praktikan.

Baina ez dira bakarrik asmoak. Atzo bertan, prentsaurrekoan, Hezkuntza kontseilariak «aldaketa» hitza onartu zuen, eta errepikatu, Euskararen Institutuaren ibilbideaz eta funtzionamenduaz galdetu ziotenean. Aldaketak izango direla, «aldaketa begi bistakoa». Giroa aldatu nahi zuela, «tratamendu bateratua» eman nahi zela, hizkuntza gaiei, eta Euskararen Kontseiluaren zeregina bilerak

egitea zela. Aurreko zuzendariaren, erakunde aholku emailak bilera bakarria egin zuen, duela bost urte. Institutuko zuzendaria euskalduna izango dela jakinarazi zuen, gainera, kontseilariak. Pedro Pegenautek beti azpimarratzen zuen, galdetzen zioten guztietan, berak ez zuela euskara zertan ikasi. Bere inguruko guztiek oso ondo zekitela erdaraz.

Jarrera aldaketa, beraz, badago. CDNk behin eta berriro azaldu du ez zuela aurreko hizkuntza politikarekin bat egiten, eta gobernu honetan aurrekoan baina indar eta presentzia handiagoa dauka Juan Cruz Alliren alderdiak. Itxurazko aldaketa bakarrik ote den ikusteko, hala ere, itxaron beharko. Aurrekontuak ikusi arte, esate baterako.